

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN
AKTA**

**LEHENDAKARITZA, 2013KO ABENDUAREN
4A**

BERTARATU DIRENAK

Iñigo Urkullu Renteria jaun txit gorena
LEHENDAKARIA

Arantza Tapia andere txit gorena
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO SAILBURUA

Ricardo Gatzagaetxebarria jaun txit gorena
OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUA

Cristina Uriarte andere txit gorena
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA

Jon Darpon jaun txit gorena (**EZ BERTARATZEKO ARRAZOIAK AZALDU DITU**)
OSASUNEKO SAILBURUA

José Luis Bilbao jaun txit gorena
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Martín Garitano jaun txit gorena
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Javier De Andres jaun txit gorena
ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Iñaki Goirizelaia jaun txit gorena
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Jose M^a Gibert jaun txit gorena
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Josu Zabala jaun txit gorena
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Fernando Cossío jauna
IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Alberto García Erauzkin jauna
INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Jesús Peña Martinez jaun txit argia
LEHENDAKARITZAKO IDAZKARI NAGUSIA

GAI-ZERRENDA

1. 2013ko irailaren 13ko bileraren akta irakurtzea eta onestea.
2. RIS3 Euskadi estrategiaren lanketan izandako aurrerapausoei buruzko informazioa.
3. 1/2007 Dekretua eguneratzeko proposamena.
4. Aholkularitza Batzorde Zientifiko kide nor izan daitezkeen proposatzea.
5. Eskaerak eta galderak.

1. 2013ko irailaren 13ko akta onestea.

Akta onetsi da, eta ez da inolako oharrik egin

2. RIS3 Euskadi strategiaren lanketan izandako aurrerapausoei buruzko informazioa

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak hartu du hitza. Gure indarguneetan oinarrituta Euskadiren politika zientifiko eta teknologikoaren espezializazioaren eta dibertsifikazioaren ikuspegia ezartzeko orientabideak jasoko dituen lehenengo agiri baten lanketan egindako aurrerapausoen berri eman du. Egindako agiria oinarria izango da 2014an indarreko 2015 ZTBPren eguneraketa-prozesuan aurrera egiteko.

Egindako kontsulten arabera, gaur egungo ZTBPk Europak eskatzen dituen estandarrei erantzuten die, eta euskal eskualdearen espezializazio adimentsuko estrategia baten europar irizpideak betetzen ditu. Alde horretan, lantzen ari den agiria barnekoa da, izaera hori du, eta gure politika zientifiko eta teknologikoaren orientabide izan nahi du, Europar Batasunaren kanpoko eskakizun bati erantzuna baino gehiago, eta horrek denbora aldetik nolabaiteko tartea ematen digu.

Hori esanda, sailburuak RIS3 euskal strategiaren orientaziorako ildo nagusiak azaldu ditu. Helburu nagusia da balio-kateko eragile guztien koordinazio handiagoa lortzea, oinarritzko ikerketatik ikerketa aplikaturaino, eta koordinazioaren ardatzean Euskadik indargune nagusi dituen funtsezko sektore eta teknologiak jartzea. Helburu hori, baliabide publikoak eta I+G pribatuaren baliabideak lerrotzeko orientazio gisa erabiliko da (Euskadin I+G pribatuaren baliabideak ikerketako baliabide guztien % 75 dira ia-ia).

Iragan irailaren 13ko bileran azaldu zenez, prozesua Jaurlaritzaren barruan garatzen ari da, hasierako laneko zirriborro bat edukitzeko. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta Osasun Sailak, baita Lehendakariak ere, beste kanpoko eragile batzuk egindako ekarpenak bideratu dituzte: azpisektore zientifikoaren ekarpenak, euskampusen eta unibertsitateen bitartez, enpresen azpisektorearen ekarpenak eta azpisektore teknologikoarenak. Hala ere, erkatzekeo prozesu formala lehenengo zirriborro-agiria eskura dagoenean hasiko da. Agiri hori prest egongo da 2014. urtearen hasieran.

Jarraian hitza hartu du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak, Cristina Uriartek, prozesuaren azalpen orokorra ematen jarraitu du, eta hezkuntza sailaren eta politika zientifikoaren ikuspuntutik integratuko diren orientabide eta ekarpenak azaldu ditu.

Ogasuneko sailburuak, Europako funtsen iguripenei buruz, zera azaldu du: daukan informazioaren arabera Euskadira itzuliko diren FEDER funtsak oraingo seiurtekoan jasotakoen antzekoak izango dira.

ERABAKIA.

Jasotako azalpenen ostean, Lehendakariak honako *Erabaki hau* proposatu du: *2014ko urtarrilaren amaiera alderako, RIS3 strategiaren estrategia eta orientabideak jasoko dituen barneko agiri bat edukitzea. Agiri hori egiteaz Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila arduratuko da. Sail horrek txertatuko ditu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Osasun Sailaren ekarpenak. Agiri hori zientzia, teknologia eta berrikuntza sektoreko eragile batzuen eta besteen ekarpenekin aberastuko da.*

Euskadiko RIS3 estrategia, halaber, oinarri gisa erabiliko da indarreko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana eguneratzeko. ZTBP berria egiteko lanak 2014ko lehenengo hiruhilekoan hasiko dira. Xede horrekin, 2014ko lehenengo hiruhilekoan Batzorde berezia eratuko da. Lehendakaritzako idazkari nagusiak koordinatuko du, Innobasque-ko Idazkaritza Teknikoaren laguntzarekin. Batzorde horretan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako euskal sistemako eragile guztien ordezkari diren esparruek parte hartuko dute, sektoreko eta enpresako ikerketa pribatuaren esparrua barne dela.

3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren Apirilaren 17ko 1/2007 Dekretua berritzea.

Lehendakariak azaldu duenez, hainbat ekarpen landu eta erkatu dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren Dekretua, 2007koa, berritzeko. Jasotako ekarpenetan oinarrituta, orain lantzen ari den dekretu berria idazteko eta onesteko erabiliko diren irizpideak honako hauek dira:

Sarrera: Zaharkituta eta gaindituta geratzen diren lehengo egoerei buruzko aipamenak eguneratuko dira. Erreferentziako araudia ere eguneratuko da, bai estatukoa, bai Europakoa. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako gaur egungo estrategiarekin identifikatzen diren kontzeptuak txertatuko dira espezializazioari, bikaintasunari, sistemaren gobernantzari eta emaitzetara bideratutako ebaluazioari dagokienez.

Kontseiluaren eginkizunak: Honako eginkizun hauek indartuko dira: -Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako euskal sistemaren orientazio estrategiko orokorra, -koordinazioa, -proiektu estrategikoen sustapena, -ildo estrategikoen definizioa eta -Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako urte anitzeko Plana onetsi eta ebaluatzeo nahitaezko txostena.

Kontseiluaren osaera: Kontseilu handiagoa planteatzen da, anitzagoa eta aberasgarria izango dena. Gaur egungo kideez gain, Lehendakariak Kontseiluan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako sistemako esparru batzuetako eta besteetako ordezkariak sartzea planteatu du. Zehazki, zientziaren esparruaren ordezkari indartzea aurreikusi da, eta alde horretatik Jakiunde sartzea. Halaber, Tecnaliaren eta IK4ren bitartez azpistema teknologikoaren ordezkari sartzea planteatu da. Azkenik, eta Lehendakariak proposatuta, ikerketa pribatuaren esparruan eragile diren sektore eta enpresetako ordezkariak ere izendatuko dira, enpresa-sektore pribatuak I+Gko inbertsio osoaren ia % 75 egiten baitu.

Ordezkaria Ordezkararen figura mantenduko da, gaur egungo eginkizunetan. Figura hori betetzen ez den bitartean, ordezkari horren eginkizunak Lehendakaritzako idazkari nagusiak beteko ditu.

Idazkaritza Teknikoa: Ordez kariaren lanetan laguntzeko Idazkaritza Teknikoaren figura mantenduko da. Idazkaritza Teknikoa, aldi baterako, Innobasque-k edukiko du.

ERABAKIA

Aurreko irizpide horietan oinarrituta, Lehendakariak apirilaren 17ko 1/2007 Dekretua ordezteko dekretu berria idaztea agindu dio Lehendakaritzako idazkari nagusiari. Dekretu berria Kontseiluko kideei igorriko zaie urtarrilean, eta legez kotasunari nahiz kontrol ekonomikoari buruzko txostenak egin ostean, 2014ko otsailean Jaurlaritzaren Kontseiluan onetsiko da.

4. Aholkularitza Batzorde Zientifikoa:

Lehendakaritzan hirurogei proposamen baino gehiago jaso dira, eta zuhurtziaz eta konfidentziaz handienarekin baloratzen ari dira. Lehendakariak, bere eskumenak baliatuta, hurrengo Kontseiluan Aholkularitza Batzordeko 10 pertsonen izendapenaren berri emango du. Pertsona horiek euren ospea kontuan hartuta hautatuko dira, oreka-irizpidearen arabera. Irizpide horren arabera ikerketa zientifikoko, enpresa-ikerketako eta ikerketa teknologikoko esparruetako pertsonak hartuko dira kontuan. Halaber, ahal dela, Aholkularitza Batzorde Zientifikoa estatuko nahiz Europako I+Gko estrategiarekin zerikusia duten pertsonak egongo dira.

ERABAKIA

Lehendakariak berretsi du hurrengo 15 egunen barruan proposamen berriak jasotzeko prest dagoela. Jasotako proposamenetan eta aipatutako oreka-irizpideetan oinarrituta, Lehendakariak, bere eskumenak baliatuta, Aholkularitza Batzordea izendatuko du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren hurrengo bileran.

5. Eskaerak eta galderak

Mondragon Unibertsitateko ordezkariak Saiotek programari buruz 2014ko informazioa eskatu du. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak azaldu duenez, gaur egungo Saiotek programak ez zituen helburuak betetzen, arreta funtsezko teknologietan eta ikerketa aplikatuan jartzeari dagokionez, helburu horietan oinarritu nahi baita Sailaren estrategia berria.

Arabako diputatu nagusiak, era berean, zera planteatu du: egokia da sareko ikerketa garatzea, eta I+Grako funtsen erabilera lurraldean artean oreka bideratzea.

Aztertzeke beste gairik ez dagoela, 12,15ean bilera amaitu da.

Jesús Peña Martínez

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA